



Donostiako Udaleko Berdintasun Kontseiluak, 2021eko otsailaren 10ean egindako osoko bilkuran, eskaera hau onartu zuen:

ASADE elkarteak, Berdintasun Kontseiluko kide gisa, 2020ko abenduaren 2ko osoko bilkuran eskatu zuen emakume zaintzaileen lana eta rola EZ DIRELA IKUSTEN SALATZEKO.

370 emakume baino gehiago azpikontratatzeko dira Donostiako Udalaren Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko, kontratazio publikoan. Gaur egun enpresa kudeatzailea Aztertzen SL da.

COVID-19aren pandemiaren ondorioei genero-ikuspegitik erantzun behar zaie, desberdintasunak areagotzea saihesteko. Faktore batek baino gehiagok areagotzen dute krisiak emakumeengan duen eragina. Adibidez, pandemiak gehiegizko lan-karga ezartzen du emakumeak ugari diren lanetan: bai osasun-lanean eta funtsezko zerbitzuetan, bai etxeko lanetan eta zainketetan (lan erreproduktiboan eta bizitzari eusteko lanetan). Pobreziak eta lan-prekarietateak ere, lehendik ere eragin desberdina zutenak gizon eta emakumeengan, larriagotzen ari dira, eta genero-indarkeria jasateko arriskua ere handitzen ari da.

Espainiako Gobernuak 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuan ezarritako alarma-egoeran –2020ko ekainaren 21ean amaituta–, etxez etxeko laguntza-zerbitzua bermatu zen, eta zerbitzu horretako langileak "FUNTSEZKO LANGILE"tzat jo ziren. Haien lana baloratzeko, bizi izan duten hazkunde pertsonala ere baloratu zen: beren erantzukizuna eta lankidetzan aritzeko gogoia handitu dira; hitz batean, LAGUNTZEAREN balioa ikasi dute, COVID-19aren pandemian pairatutako momentu zail-zailetan.

Hasteko esan behar dugu etxez etxeko laguntza-zerbitzua funtsezko tresna dela adineko pertsonen eta mendekotasun-egoeran daudenen ongizaterako; COVID-19aren pandemiak eragindako isolamenduan erabiltzaileen oinarrizko beharrezkoen arreta ematen jarraitu zaie. Izan ere, pertsona horiek mugatua izan zuten eguneko zentroetara sartzea, eta, gainera, konfinamendua ere bizi izan zuten, kutsatzeko arriskuagatik; eta kutsatzeak izan ziren.

Era berean, zehaztu behar da Etxez Etxeko Zerbitzua COVID-19ak kutsatuta dauden erabiltzaileei ere ematen zaiela, osasun-agintariek gomendatutako babes neurri eta materialekin, beharrezko isolamenduak ezarritako baldintzak bete ditzan.

Gertatu den guztiaren ondorioz, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileek lehen pertsonan jasan behar izan dituzte honelako gabeziak: prebentzio-materialik eza; etxe partikularretan ematen den etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren berezitasunekin zerikusituzena duen jardueraprotokolorik eza; lehenengo pertsona kutsatzeko arriskua, erabiltzaile eta langileen artean gutxienez 2 metroko tartea izan gabe garbiketa pertsonalak egiteko prebentzio-material egokirik ez zegoelako; "kalean botatako" orduak, enpresaren eta Udalaren esanetara, zerbitzuan baja eman gabeko erabiltzaileei arreta emateko; oso ordutegi desberdinak, batzuen eta beste batzuen arteko hutsuneagatik; beren eginkariak egiteko komunikazio eza; eserleku batean eseri ezinik, ordu bete edo bi ordu inguru egotea zerbitzuak egiteko zain, eta ORDU NEGATIBOAK pilatzea, hilean-hilean berreskuratu beharrekoak, enpresak galerak zituelako erabiltzaileen bajengatik. Esan behar dugu martxoan, apirilean eta maiatzean 400 bat erabiltzailerik eman zitzaizela baja, eta ekainetik aurrera alta eman zitzaizela, pixkanaka-pixkanaka, baina ez denei. COVID-19a dela eta pilatutako ordu negatiboak berreskuratu dituzte etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileek alarma-egoeraren ondorengo hilabeteetan, eta, horrela, beren lanaldia nabarmen luzatu da; gainera,

etxez etxeko laguntzaileak etxez aldatzeko hain beharrezkoak dituzten garraio-bide publikoak murriztu dira, eta laneko eta prebentziozko materiala jasotzeko ere denbora gehiago behar izan dute. Denbora hori guztia langileen kontura doa.

Hori dela eta, eskatzen dugu, zuzenbidezkoa denez, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileen figura IKUSGARRI IZAN dadila PUBLIKOKI, ez bakarrik FUNTSEZKO LANGILE gisa, eremu sozio-sanitarioko profesional gisa ere, erabiltzaileak beren ohiko bizilekuan seguru eta kasu eginda sentitzea lortu dutenak. Oso kontuan hartu behar da Donostiako Udalak, zerbitzu publikoa denez, hainbat aldiz esku hartu duela erabiltzaileak eta langileak berak ez kutsatzeko hain beharrezkoa den materiala entregatzeko.

Eta, bide batez, PUBLIKOKI IKUSGARRI EGITEKO eskaera horretaz gain, Donostiako Udalari eskatu nahi diogu, modu sinbolikoan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileei funtsezko zerbitzua ematen jardun duten laguntzaileei, esker on ekonomikoa emateko. Ez dugu inola ere zenbateko jakin bat eskatzen, baina, berriro diogu, sinbolikoa izan behar duela. Eta zuzena, Donostiako Udalak hainbat estamentu ofizialetatik eta Europako Batasunetik jaso dituen eta jasoko dituen laguntzen kontura.